

ISEI - IVEI

**E1.2.1. CURRICULUM KONPETENTZIA LHko 4.
MAILAN: EUSKARAZKO HIZKUNTZA-
KOMUNIKAZIOA.**





IRAKAS-SISTEMA EBALUATU ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA
BASQUE INSTITUTE FOR RESEARCH AND EVALUATION IN EDUCATION

ISEI-IVEI



Edizioa: 2021ko urtarila
© ISEI•IVEI-k argitaratua

ISEI•IVEI-K ARGITARATUA

Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea
Asturias 9, 3.a - 48015 Bilbo
Tel.: 94 476 06 04 - Fax: 94 476 37 84
info@isei-ivei.net - www.isei-ivei.hezkuntza.net



E1.2.1

Curriculum kompetentzia LHko 4. mailan: Euskara

HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



Aurkibidea

EUSKARAZKO HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIOKO KONPETENTZIAREN ESKURA-PENARI BURUZKO DATUAK LEHEN HEZKUNTZAKO (LH) 4. MAILAKO IKASLEEN ARTEAN. EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA 2009, 2010, 2011, 2013, 2015, 2017 ETA 2019. 4

E1.2.1.1 taula eta grafikoak: 6

Lehen Hezkuntzako (LH) 4. mailako ikasleek *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* lortutako puntuazioen bilakaera, *Irakurmena, Entzumena eta Idazmena*, dimentsioetan, guztira eta sexuaren arabera..... 6

E1.2.1.2 taula eta grafikoak: 7

Lehen Hezkuntzako (LH) 4. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera *Euskarazko hizkuntza-komunikazioko kompetentziako* hiru errendimendu-mailetak bakoitzean, guztira eta sexuaren arabera..... 7

E1.2.1.3 taula eta grafikoak: 8

Lehen Hezkuntzako (LH) 4. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* geruzaren arabera (hizkuntz-ereduak eta ikastetxearen titulartasuna). 8

E1.2.1.4 taula: 9

Lehen Hezkuntzako (LH) 4. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera Euskarazko hizkuntza-komunikazioko kompetentziako hiru errendimendu-mailetak bakoitzean, aldagai hauen arabera: ikasleen indize sozio-ekonomiko eta kulturala (ISEK), adin-egokitasuna irakasmalarekiko, ikastetxearen titulartasuna, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua eta familiako hizkuntza. 9

E1.2.1.4 grafikoa: 10

Lehen Hezkuntzako (LH) 4. mailako ikasleen ehunekoa *Euskarazko hizkuntza-komunikazioko kompetentziako* hiru errendimendu-mailetak bakoitzean, aldagai hauen arabera: ikasleen indize sozio-ekonomiko eta kulturala (ISEK), adin-egokitasuna irakasmalarekiko, ikastetxearen titulartasuna, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua eta familiako hizkuntza. 2019. urtea. 10



E1.2.1

Curriculum kompetentzia LHko 4. mailan: Euskara

HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



EUSKARAZKO HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIOKO KONPETENTZIAREN ESKURA-PENARI BURUZKO DATUAK LEHEN HEZKUNTZAKO (LH) 4. MAILAKO IKASLEEN ARTEAN. EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA 2009, 2010, 2011, 2013, 2015, 2017 ETA 2019¹.

Adierazle honek Lehen Hezkuntzako (LH) 4. mailako ikasleek Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian duten mailaren inguruko informazioa ematen du. Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) 2009, 2010, 2011, 2013, 2015, 2017 eta 2019 urteetako Ebaluazio Diagnostikoan lortutako emaitzak dira. Ebaluazio horietan 250 puntuko batez bestekoa ezarri da, desbideratze tipikoko 50 puntu eta hiru errendimendu maila (hasierakoa, erdi-mailakoa eta aurreratua).

Emaitzak aldagai jakin batzuk kontuan hartuta aztertzen dira: ikasleen sexua, geruzak (hizkuntza-ereduak² eta ikastetxearen titulartasuna³), indize sozio-ekonomikoa eta kulturala (ISEK), irakasmillarekiko adin-egokitasuna (jaioturtea eta egiten ari den irakasmilla), aitaren eta amaren ikasketen maila gorena, jaiolekua eta familia-hizkuntza.

Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako gaitasunean ebaluatutako hiru dimentsioen bilakaeraren analisiak erakusten duenez, 2009 eta 2019 arteko aldirian, Irakurmenari dagokionez, ikasleen puntuazioek 3 puntu egin dute hobera mutilen kasuan eta 4 puntu nesken kasuan; Entzumenari dagokionez, nesken puntuazioek 4 puntu egin dute gora, eta mutilen kasuan, berriz, puntu bat egin dute okerrera; Idazmenari dagokionez puntuazioak egonkor mantendu dira mutilen kasuan eta nesketan puntu bat jaitsi dira. Aldi horretan, puntuazio altuenak 2010n eta 2011an eman ziren, eta, ondoren, 2015ean eta 2017an atzera egin zen, eta 2019an berreskuratu egin zen. Neskek mutilek baino puntuazio handiagoa lortu zuten dimentsio guztietan eta ebaluazio guztietan. 2019an, neskek mutilek baino 13 puntu gehiago lortu zuten Irakurmenean eta Entzumenean, eta 16 puntu gehiago Idazmenean.

2019ko ebaluazio diagnostikoan Euskarazko hizkuntza-komunikazioko kompetentzian ikasleen ehunekoa, errendimendu maila altutik baxura, honakoa izan da: % 34,7koa erdiko mailan, % 34,3koa hasierako mailan eta % 31koa maila aurreratuan. Datu horiek 2017ko ebaluazio diagnostikoarekin alderatuz gero, hasierako maila % 3,1 jaitsi da eta maila aurreratua % 6,5 igo da. Maila aurreratuan eta erdiko mailan, nesken ehunekoak mutilen ehunekoa gainditzen du: 8,2 eta 2,3 puntu, hurrenez hurren. Hasierako mailan, mutilen ehunekoa nesken ehunekoa baino 10,6 puntu altuagoa da.

2019an geruzen arabera batez besteko puntuazioak aztertzean, ikusten da puntuaziorik altuena itunpeko D ereduari (266) eta D eredu publikoari (252) dagokiela. Ezarritako batez besteko puntuazioaren azpitik, puntuazio altuenetik baxuenera, eredu hauek daude: itunpeko B eredu (238), itunpeko A (228), B eredu publikoa (217), eta A eredu publikoa (182). 2009 eta 2019 urteen artean, ikasleen batez besteko puntuazioen bilakaera positiboa izan da itunpeko A eredu (31 puntu) eta A

¹ Informazio gehiagorako: Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2010, 2011, 2013, 2015, 2017 eta 2019. Txosten orokorra. <http://www.isei-ivei.net/cast/pub/indexpub.htm>

² EAEn hiru hizkuntza-eredu daude: A (irakaskuntzako hizkuntza gaztelania), B (irakaskuntzako hizkuntza euskara eta gaztelania) eta D (irakaskuntzako hizkuntza euskara).

³ EAEn funts publikoak jasotzen dituzten bi sare daude: titulartasun publikokoa eta itunpekoa.



E1.2.1

Curriculum kompetentzia LHko 4. mailan: Euskara

HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



eredu publikoan (21 puntu), baina negatiboa izan da gainerako geruzetan (15 puntu B eredu publikoan, 8 puntu itunpeko B ereduan, 5 puntu D eredu publikoan eta 3 puntu itunpeko D ereduan).

2019an, Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian erdiko mailan eta maila aurreratuan dauden ikasleen profila honako hau da: irakasmilarekiko adin-egokitasunean daudenak (% 68,7), autoktonoak (% 67,9), ISEK maila ertain-altua (% 70,6) eta altua (% 72,1) eta familia-hizkuntza euskara dutenak (% 82,7). Erdiko mailan eta maila aurreratuan ehuneko txikiena duten ikasleen profila honakoa da: irakasmila errepikatu duten ikasleak (% 27,6), etorkinak (% 45,8) eta ISEK maila baxua (% 46,8) dutenak. 2009tik 2019ra bitartean izandako euskal ikasleen ezaugarrien aldaketen artean, honako hauek nabarmendu behar dira: goi-mailako ikasketak amaitzen dituzten gurasoen ehunekoak gora egin duela (13 puntu gehiago), atzerrian jaiotako ikasleen ehunekoak gora egin duela (2009an % 5,1 izatetik 2019an % 9,6 izatera igaro da), eta familia-hizkuntzari dagokionez, etxeko lehentasunezko hizkuntza euskara erabiltzen duten ikasleen ehunekoak gora egin duela (2009an baino 4,5 puntu gehiago).



E1.2.1

Curriculum kompetentzia LHko 4. mailan: Euskara



HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



E1.2.1.1 taula eta grafikoak:

Lehen Hezkuntzako (LH) 4. mailako ikasleek *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* lortutako puntuazioen bilakaera, *Irakurmena*, *Entzumena* eta *Idazmena*, dimentsioetan, guztira eta sexuaren arabera.

		2009	2010	2011	2013	2015	2017	2019
Guztira	Guztira	250	254	256	252	248	247	252
	Neskak	256	259	261	257	252	252	259
	Mutilak	245	249	251	247	245	242	246
Irakurmena	Guztira	250	258	255	246	241	238	253
	Neskak	256	264	259	251	245	244	260
	Mutilak	244	252	250	241	237	233	247
Entzumena	Guztira	250	247	259	261	259	260	251
	Neskak	254	251	264	265	263	265	258
	Mutilak	246	243	254	257	256	255	245
Idazmena	Guztira	250	250	250	250	250	250	250
	Neskak	259	257	258	256	257	258	258
	Mutilak	242	243	243	244	244	242	242



Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2010, 2011, 2013, 2015, 2017 eta 2019.



E1.2.1

Curriculum kompetentzia LHko 4. mailan: Euskara



HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



E1.2.1.2 taula eta grafikoak:

Lehen Hezkuntzako (LH) 4. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera *Euskarazko hizkuntza-komunikazioko kompetentziako* hiru errendimendu-mailetakoko bakoitzean, guztira eta sexuaren arabera.

	Errendimendu maila HASIERA			Errendimendu maila ERDIA			Errendimendu maila AURRERATUA		
	Guztira	Neskak	Mutilak	Guztira	Neskak	Mutilak	Guztira	Neskak	Mutilak
2009	32,9	29,1	36,6	36,6	36,5	36,6	30,5	34,4	26,8
2010	27,2	22,6	31,5	43,6	44,6	42,7	29,2	32,8	25,8
2011	30,0	25,5	34,2	37,3	38,7	36,0	32,7	35,8	29,8
2013	30,6	26,1	34,9	43,4	44,7	42,1	26,0	29,2	23,0
2015	36,1	32,3	39,7	38,2	40,0	36,4	25,7	27,7	23,8
2017	37,4	32,5	42,0	38,0	39,8	36,3	24,6	27,7	21,7
2019	34,3	28,8	39,4	34,7	35,9	33,6	31,0	35,2	27,0



Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2010, 2011, 2013, 2015, 2017 eta 2019.





E1.2.1

Curriculum kompetentzia LHko 4. mailan: Euskara



HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



E1.2.1.3 taula eta grafikoak:

Lehen Hezkuntzako (LH) 4. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* geruzaren arabera (hizkuntz-ereduak eta ikastetxearen titulartasuna).

	2009	2010	2011	2013	2015	2017	2019
A Publikoa	161	173	187	185	192	185	182
B Publikoa	232	237	234	231	225	224	217
D Publikoa	259	261	260	257	251	249	254
A Itunpekoa	197	203	218	215	216	216	228
B Itunpekoa	246	250	252	244	238	235	238
D Itunpekoa	269	271	274	265	262	261	266



Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2010, 2011, 2013, 2015, 2017 eta 2019.



E1.2.1

Curriculum kompetentzia LHko 4. mailan: Euskara

HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



E1.2.1.4 taula:

Lehen Hezkuntzako (LH) 4. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera Euskarazko hizkuntza-komunikazioko kompetentziako hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, aldagai hauen arabera: ikasleen indize sozio-ekonomiko eta kulturala (ISEK), adin-egokitasuna irakasmalarekiko, ikastetxearen titulartasuna, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua eta familiako hizkuntza.

	Ikasle %						2019	Hasierako	Erdi-	Maila	
	2009	2010	2011	2013	2015	2017		maila	maila	aurreratua	
ISEK	Maila baxua ²	14,6	15,8	14,7	16,7	15,8	16,8	16,8	53,2	30,4	16,4
	Maila ertain baxua ²	23,3	24,2	24,2	25,0	23,8	26,2	24,3	35,0	36,0	29,0
	Maila ertain altua ²	28,0	26,6	27,4	27,1	27,8	25,3	25,6	29,4	36,4	34,2
	Maila altua ²	34,0	33,3	33,7	31,2	32,6	31,6	33,3	27,9	34,8	37,3
Egokitasuna	Ikasmala egokia	93,0	92,2	92,7	93,2	93,1	93,7	92,9	31,4	35,7	33,0
	Ikasmala EZ egokia	7,0	7,8	7,3	6,8	6,9	6,3	7,1	72,4	22,9	4,7
Titulartasuna	Publikoa	50,5	49,9	50,3	50,1	50,4	51,1	51,5	35,5	34,2	30,3
	Itunpekoa	49,5	50,1	49,7	49,9	49,6	48,9	48,5	33,0	35,3	31,6
Gurasoen ikasketa mailarik altuena	Derrig. Ikask. bukatu gabe	3,3	3,0	3,7	3,6	3,5	3,4	3,3	65,5	27,0	7,4
	Derrigorrezko ikasketak	13,0	12,6	14,4	14,1	12,6	11,1	10,7	53,5	32,5	13,9
	Batxilergoa, HZ	34,4	34,1	38,5	36,0	36,5	35,1	32,0	39,1	36,9	24,0
	Goi mailako ikasketak	41,0	41,4	43,4	46,2	47,5	50,5	54,0	24,7	34,6	40,7
Jaioterria	Autoktonoa	94,9	94,2	94,8	95,1	94,7	91,6	90,4	32,1	35,0	32,9
	Atzerritarra	5,1	5,8	5,2	4,9	5,3	8,4	9,6	54,2	32,5	13,3
Familia-hizkuntza*	Euskara	18,0	26,1	23,6	25,3	26,3	26,3	22,5	17,2	30,3	52,4
	Euskara EZ dena	81,0	69,8	76,4	74,1	73,7	73,7	77,5	39,1	36,0	24,9

*2009 eta 2010. urteetan, ikasle kopuru txiki batek ez zuen etxeko hizkuntzaren galdera erantzun.

Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2010, 2011, 2013, 2015, 2017 eta 2019.



E1.2.1


Curriculum kompetentzia LHko 4. mailan: Euskara

HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



E1.2.1.4 grafikoa:

Lehen Hezkuntzako (LH) 4. mailako ikasleen ehunekoa *Euskarazko hizkuntza-komunikazioko kompetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, aldagai hauen arabera: ikasleen indize sozio-ekonomiko eta kulturala (ISEK), adin-egokitasuna irakasmalarekiko, ikastetxearen titulartasuna, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua eta familiako hizkuntza. 2019. urtea.



Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2019.